


ttipi-ttapa

1992.eko Irailak 17

93. zenbakia

dohain banatzen da





ika

MAILA GUZTIAK, EGA ETA ALFABETATZEN

☐ Astean, 4, 6, 8 ordu.

☐ Larunbatetan



BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

637796 / 631105

SARALDEA

637796 / 631105

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

451555

LEITZAKO EUSKALTEGIA

610776

EUSKARA AURRERA



BAZTAN / BORTZIRIAK / MALERREKA / LEITZA-GOIZUETako **EUSKARA ZERBITZUAK**

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/28 HERRIZ HERRI**
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
 Bortzirietan, "Euskara Batzordeen Berriak" koadernilloa.
-
- 29 ERREPORTAIA:** Zona mailan, kirolaren egoera «kaxkarra» da bertako Udalen ustez.
 Aitor Arozena
-
- 32 KIROLAK:** "Olinpiadetatik bueltan... protagonisten balorazio eta omenaldien ordua etorri zen".
-
- 34 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
 Tirada: 5.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
 31780 BERA
 Tfnoa.: 63 11 88
 Faxe: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Irailaren 19-20an,**
Etxalar, Doneztebe eta
F. Iturralde (Elizondo).

► **Irailaren 26-27an,**
Bera, Ituren eta F. Eli-
zalde (Elizondo).

Deialdiak

► **ETXALAR,** Irailaren
23an, Euskara Batzor-
dearen bilera.

► **ETXALAR,** Irailaren
24ean, Euskara Manko-
munitateko Aholkulari-
tza Batzordearen bilera.

► BERA

HITZALDIA
"Alkoholiko Anonimoak"
Irailaren 19an, Kultur

Etxean, Txarla pu-
blikoa. Alkoholiko eta
familiarrek parte har-
tuko dute.
Informaziorako telefo-
noa: 24 24 44

Ekitaldiak

► ETXALAR

MAHAI-INGURUA:
"KIROLA"

Irailaren 18an, 7,30-
etan, Herriko Etxean.
Partehartzaileak: X.
Bakero, A. Maiz, Retegi
Ila, J.D. de Gereñu, D.
Larretxea, I. Errando-
nea, N. Gabellanes.
Moderatzailea: Iñaki
Perurena. **Antolatzaile-**

lea: Bortzirietako Eus-
kaltegia-IKA.

► IGANTZI

MAHAI-INGURUA:
"EUSKAL HUMOREA"


Irailaren 25ean,
7,30etan, Biltokin.
Partehartzaileak: X.
Bakero, A. Maiz, Retegi
Ila, J.D. de Gereñu, D.
LarretxeaModeratzai-
lea: Iñaki Perurena.
Antolatzailea: Bortzi-
rietako Euskaltegia.

Ikastaroak

► DONAMARIA

ERLAJAZIOA
Urriaren 1tik aintzi-
nera. ☎450725/450708.

Bota bertsoa



Javier ALTZUGARAI

(Bortzirietako bertso eskola)

Gaia: Berriz eskolara

Neurria: Zortziko Haundia

Jadanik aurten gure oporrak
bukatzen hasi direla
eta eskola hurbil daukagu
instantin hasitzen dela
deberek ere bukatu gabe
bazter batean daudela
seigarren maila hasi behar dut
eta pozik nagoela.

Eskola laister hasitzen dela
eta ez dut nahi pentsatu
oporrak bizkor joan zaizkigu
ia ia ez naiz ohartu
berriro ere joan beharra
nahiz ta inoiz ez gustatu
nahiago dut nik bertsoak kanta
eta eskola bukatu.

AGENDA

Erakusketa

ESKULTURA

► ELIZONDO

Irailaren 20a arte, *Blanca Garnicaren* eskultura lanak ikusgai egonen dira Arizkunenean.

Bestak

► IGANTZI

Irailaren 25etik 29ra *San Migelak*. Xehetasunak 13 orrialdean.

► URROTZ

Irailaren 25etik 29ra *San Migelak*.

► DONEZTEBE

San Miguel auzoan.

Lehiaketak

► ELIZONDO

ARDI ETA BEHI
AZIENDA SARIKETA

Irailaren 20an, igandea, Elizondon, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdikoentzat. Baldintzen zerrenda eta gainerako xehetasunak Baztango Balleko Etxean.

Gastronomia

ETXEKO LABEA

Jatetxe gehientsuenak sekzio honetan agertu dira jada eta etxeko sukaldea ezagutu asmoz, irakulegoaren kolaborazioa eskatzen dugu. Ziur gaude, zuen etxeetan edota elkarteetan errezetak as-



matzeari, ekin diozuela nozpait, ala, ezaguna den

errezeta bati, zuen ukitu berezia ematen. Hori eza-gutarazi nahi baduzu, erre-zeta horiek bidali.

Honelako baldintzak bete behar dituzue: 4 lagunen-dako osagaiak, prestatze-ko era, izena eta deiturak, herria eta karneta tamai-noko argazki bat. Sekzio honi praktikotasuna eman asmoz era guzietako erre-zetak hartzen ditugu, kontserbak, saltsak e.a.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-lokoa): 4.000 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 162 pzta/kilo **Zerramak**: 75-95 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....510
1.koa.....480
2.koa.....460

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....530
1.koa.....510
2.koa.....480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 320 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 13.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 25.000 eta idixkoak 32.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»


Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

W 11 galdera ilabur



Patxi Mindegia
18 urteko Aizkolaria

- Aizkora ala motozerra? Aizkora.
- Lana mendian (basoan) ala igeltsero? Igeltsero nahiago.
- Herrian ala baserrian bizi? Baserrian.
- Eskola ala lana? Lana.
- Larretxea ala Larrospide? Larretxea.
- Bestetan dantzan ibili ala zurrutan? Dantzan ibili.
- Neska hiritarrak ala herritarrak? Herritarrak, duikabe.
- Neska bateri begiratzeko orduan, lepotik goiti edo behiti? Segun ze in-tentzioarekin joaten haizen.
- Lehenbiziko aldiz egiteko, ezaguna ala ezezaguna? Ezaguna.
- Herri kirolak, ikusteko ala hiaurre aritzeko? Nihaurre aritzeko.
- Indarra ala maña? Biek beharrezkoak dira, baina aukeratzekotan maña.


W Antzerkia

► Angel Garó
Donostiako
Principe Antzokian

Bi ordu t'erdi oso osoak, irauten ditu Angel Garok eszenategi gainean bakar bakarrik. Hogei dira antzesten dituen pertsonai diferenteak, eszenategia eta erabiltzen duen arropa, fin iluna aldatu gabe.

Lan luze eta sakona egin du mutil honek, me-rezi duen lekura ailegatu arte.

Antzerki taldeak, gaur egu-nean gordina baldin badauka-te lanak aurkez-terakoan, gordinagoa oraindik-dauka batek ba-karrik, lan modu berezi honekin.



Imitazioakla-be bezala erabil-tzen du Angelek, egiak aztertze-ko. Orain dela urte pare bat Madri-len aztertu nahi izan zuen bere lana eta lehenda-biziko ordu erdia igaro baino lehen jendeak alde egi-

ten zuen lana ulertzen ez eta.

Gaureguneko kontradikzioak ederkki jartzen dizkigu aurpegi aintzinean inon-go konpleju eta mugarik gabe.

Honen aintzi-netik egin duen lana: marrazki

bizidunen filma bati, 32 boza mota berak jarri.

"Juan de la Cosa" bezala, "Un, dos, tres " telebista progaman ezagutarazi zen Angel Garó.

MARIANO

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

☎ 63 12 67 - BERA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238Tfnoan, Agerra Industrialdean

EUSKARA BATZORDEEN Berriak



Euskararen transmisio kanpaina eta Matrikulazio kanpaina hastear

Transmisio eta matrikulazio kanpainak hasi dira. Euskararen transmisio kanpaina eta matrikulazio kanpaina hastear. Euskararen transmisio kanpaina eta matrikulazio kanpaina hastear. Euskararen transmisio kanpaina eta matrikulazio kanpaina hastear.

"Euskara Batzordeen berriak" izena duen gehigarria doakizue ale honekin batera Bortzirietan bizi zaretenoi. Gehigarri honen argitaratzailea Bortzirietako Euskara Mankomunitatea da eta oraingo hau urte honetako bigarren zenbakia dugu. Lau orrialdetan zehar, elkarrizketak, eritziak, liburu erreseñak, Transmisio eta matrikulazio kanpainen berri e.a. aurki daiteke.

Akelarre-92a ospatuko da hilaren 19 eta 20an

Larunera ibilaldia eta zerrikume jatea ekitaldirik aipagarrienak



Aurtogoan, Akelarre ospakizunaren 6. garren edizioa burutuko da, Irailaren 19 eta 20an, "Euskarak batzen gaitu! Mugarik ez!" lemapean.

Antolakuntza honetan mugaz bi aldeko zortzi elkartek hartzen dute parte, hala nola: Biriaturko Belatza jaleak, Urruñako Altxa Lili, Azkaingo Hazia, Sarako Olhain, Berako Gure Txokoa eta Larun Mendi Taldea,

Etxalarko Altxata eta Bortzirietako Euskaltegiak (IKA).

Irailaren 19an, Saran, Zerrikume Jatea izanen da Akelarre ostatuan "Añi-mainean", arratsaldeko 2ak aldera.

Irailaren 20an, azken urte hauetako ohiturari jarraituz, Larunera ibilaldia, eta xardin jatea arratsaldeko ordu batetan. Sagardoa eta gasna ere ez dira faltatuko, noski.



Errekor mundiala Eratsunen izan dugu oraingoan, izan ere ikusten duzuen zerrama honek 22 ume egin ditu, hauetatik 17 bizirik dituela. Hau ikusi nahi duenak, Matenea etxera joatea bertzerik ez du.

M. JESUS

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



BERTIZARANAKO UDALEKO ALKATE JAUNARI

Lerro hauen bidez adierazi nahi dut buelta aunitz eman ondoren oraindaino ez dakidala zerk bulkatu zuen Miguel Oteiza Laurnaga jaun-a Bertizaranako alkatetzara aurkezte-ra, haren jokabidearen ondorioz, berezko interesak eta bere "lagunenak" defendatzeagatik izan zela somatu badaiteke ere. Eta, noski, beti ere atzenduz aranean "haietaz" gainera,

kontutan hartu beharreko bertze barri-deak ere bizi garela.

Oraingo honetan, 1991 urteko errenta aitorpena egiteko epea akitu delarik, ohartu naiz urte horri dagokion kontribuzioa ordaintzekoa ez duela igorri, eta, hortaz, udal honetako barrideok ezin izan dugu desgrabaziorik lortu kontzeptu horrengatik. Honela, zure agintaldian barrrena, berriz ere kaltetu nauzu, oraingo honetan ekonomiko-ki. Zure eraginkortasun ezaren ondorio-

ak neronek ordaindu beharez ditudala uste dudanez, pentsatzen dut 1991ko kontribuzioak zure bizkar joan behar dutela edo, gutxienez, desgrabatu ezin izan dugun diru-kopurua itzuli behar diguzula.

Eta akitzeko, hau oroiterazi nahi dizut: ez zarete ez lau, ez zazpi, araneke biztanleak; zorionez gainerakoak ere gauden hemen eta komeni zaizue aintzakotzat hartzea.

Antonio
Narbarte

ERREZIKLATU BAI; BAINA NOLA?

Denok dakigun bezala Euskal-Herriko basoak (eta hauekin batera mundu guztikoak) galtzen ari dira zuhaitz mozketa onduketaren ondorioz. Honek ondorio txarrak dakartza baimendientzat, bai bertako animalientzat, eta azken finean, baita guretzat ere. Mozten diren zuhaitz hauetako askoren helburua, papera egitea da. Hau neurri haundi batean eragotzi genezake erabili-

tako papera erreziklatuz; ez bait da ezer kostatzen paper erabilia jasotzea, eta hau erreziklatuz gero, baso asko salba bait ditzakegu.

Baina hau egiteko, gure herrietan arazo batekin aurkitzen gara; nora eraman dezakegu papera, errezikla dadin?

Beraz, hemendik Udalei eta liburudendei eskatzen diegu, papera biltzeko ontzi bereziak jar ditzatela, gure inguruari mesede haundia egin diezaioketu eta.

Bi Leitzar

EKAITZA OSTATUA



Altzate - BERA



ESTETIKA • SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA



* Zure bideo erreportai-ekin, pozik zaude?

* Atera nahi diozu etekin haundiagorik zure kamarari?

Radio Bidasoak ikastaro batzuk egiteko posibilitatea eskeintzen dizu, zure erreportaiak profesionalak bezala egin ahal izateko.

Orduaz hitzegin dezakegu, oinarritzko maila:

Grabaketa eta montaia

Kantonberri 1
BERA ☎ 630377



MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.


Eztegara 19 - ☎ 63 02 40
BERA

Alkaiagako Industrialdeagatik afektatutako bizilagunek alegazioak aurkeztu dizkiote Nafarroako Gobernuari

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Nafarroako Gobernuaren arabera, Bortzirietan Industrialde bat ezartzeko lekurik egokiena Alkaiagako zelaia litzateke. Alkaiagako bizilagunak, aldiz, ez dira uste berekoak. Izan ere, Lurralde Antolaketaarako Departamentuan aurkeztutako alegazioan dioten bezalaxe, "industrialdea egiteko erabili nahi den eremua, gaur egun, labrantzatik bizi diren auzotarrek behar-beharrezkoa dute bizibidea ateratzeko".

Horretaz gain, bizilagunen ustetan "Bortzirietan badago gisa honetako industrialdea ezartzeko aukera hoberik, labrantza lurrik hondatu gabe, eta kasu konkretu honetan gainera, orain indarrean dauden lege eta normatibek arabera, zelai horie-



Industrialderako erabili nahi diren lur horietatik bizibidea ateratzen dute gaur egun Alkaiagako hainbat bizilagunek.

tan juridikoki eta teknikoki ez dira ematen bideragarritasun baldintzarik Bortzirietan mailako industrialderik bertan ezartzeko".

Bertalde eta Nafarroako Gobernuaren erantzunik hartu bitartean, Alkaiagatarrek Bortzirietako Udaletan ere sartu dituzte alegazio berberak.

W ttipi-flash

□ 'Alkoholico Anonimo' taldearen eskutik, txarla bat eskeiniko da irailaren 19an, ortzirala, Berako Kultur Etxean arratsaldeko 8etan.

□ Berako EAren udaltaldeak aurkezturik 'Bakearen aldeko manifestua' onartu zen, aldeko 9 boturekin (EA, Herrialde) eta kontrako 2rekin (HB).



Abuztuaren 22an zabaldu zen Berako Futbol zelai berria. Estreinoa Osasuna Promesas eta Real Sociedad B-ren arteko partidua erekin eman zitzaion. Argazkia: GOIKO

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

LESAKA

«Bakearen Aldeko Manifestua» onartu zuen Udalak

EA mozioaren alde agertu zen, PNV eta HB kontra

AITOR AROZENA

EA eta PNVren aldeko botoekin eta HBren kontrakoarekin onartu zen azken udalbatzan EA alderdiak aurkeztutako "Euskal Herriko Bakearen aldeko Manifestua".

Idatzian, "Euskal Herriak gaur egun dituen arazo sozio-politikoak konpontzeko irtenbidea biolentzia ez dela" aipatzen zen, "giza bizitza balore guzaien gaitik" paratuz. Eraberean, "ETAk berehala armak uztea" eskatzen zuen.

PNVk alde botatu bazuen ere, mozioa denboraz eta lekuz kanpo aurkezte leporatuzion Eari, "alderdi honen koherentzia falta" salatuz.

HBko zinegotziek, aldiz, manifestuaren aurka botatu zuten, "biolentzia hitzegiten delako, baina ez da ez tortura eta ez Estatuaren biolentzia aipatzen".



Kamioneroek eta Laminaciones-eko langileek ez zuten nahi bezala hasi Iraileko hilabetea
ARTXIBOA

Lan arazo larriekin hasi da Iraila

Irailaren hasierako garraiolarien huelga dela eta, normalean baino kamioi mugimendu guttiago nabari zen inguruko errepideetan. Jarraipena erabatekoa izan ez bada ere, kontutuan izan behar da, «Transportes del Bidasoa» kooperatiban bakarrik 150 kamioiari

inguru daudela, eta hainbat familietan eragina izan du grebak.

Bertzalde, Laminaciones-eko langileek, abuztuko nominaren erdia bertzerik ez zuten kobratu eta haserre nabaria zen Lesakan. Arrazoi honengatik hilaren 15ean geldialdia burutu zuten.

W ttipi-flash

□ **Trikitixa** Jaialdia antolatu zuen Bortzirietako Euskaltegiak hilaren 13an. Bertan parte hartu zuten Lesaka, Bera, Sunbilla, Ituren eta Hondarribiako trikitilariak.

□ **Bortzirietako** bertso eskolak ikasturte berriari ekin zion hilaren 11an. Izena eman nahi izanez gero, 627597 tfnora deitu.

□ **San Fermin** Jubilatuko elkartek Zarautz bisitatuko du hilaren 25ean. Parte hartu nahi dutenak hilaren 20an baino lehen eman behar dute izena, ahal bada bikoteka.

□ **Rafa Maritxalar** korrikalariak "Iruñeako Nazioarteko Millan" parte hartuko du hilaren 19an. Berekin batera Fermin Cacho, Morcelli edo Abel Anton bezalako olinpikoak ere arituko omen dira.

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbiago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

**XATURETXEA
FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

**IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA**
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

KOSKILLA OSTATUA

Zarandia 4 - LESAKA

ARRANO



OSTATUA
Legarra - LESAKA

Andutzetako karrika bazterrak aurten moldatuko dira

Arkitektuen proiektua alda daiteke oraindik

PELLO APEZETXEA

Saneamendu lanak burutzerakoan, karreteraren zola goratu egin zuten, karrika ertzak honen parean edo beheitiago geldituz. Moldaketaren proiektuak dioenez, Chocarro-Urmeneta arkitektuek asmatua, espaloi horiek karreteraren altueran gelditzeraino jasoko dira orain, baita erre-kara jotzen duen pareta ere, espaloiaire arabera. Nola? Azera harrilosazkoa izanen da; lehendik harrilosa den tokietan, gehienak, hura kendu eta bere altueran berriz paratuz. Harririk ez den tokietan harri berriak sartuko dira. Espaloiaire ertza, berriz, zementozkoa



Plazako komunak berritzen ari Udalak

JOXEMANUEL

Eskolan obrak

Ezkerraldeko idorpea ixtea eskatu du Eskola Kontseiluak. Horrela, haitze-euritatik zaindua geldituko litzateke. Bada, ordea, bertze arrazoia: tokiz eskas dabiltzala. Obra Nafarroako Gobernuak ordaindu behar duela uste du Udalak, eta berari eskatuko dio dirulaguntza.

Musika klaseak

267.906 pzta. behar omen ditu eskolak horretarako. Udalak bortzetik hiru ordainduko ditu, bertze biak Nafarroako Gobernuari bait dagozkio, legearen arabera. Dena den, Gobernuak dena ordaindezan saiatuko da Udalak.

izanen da, eta berdin erreka aldera jotzen duen pareta gaina ere. Bada, herriko estetikaz arduratzen diren arkitektuek horrelako proiektua egiteaz, harritu dena: espaloiaire oraingo ertz zaharra, harritzkoa ia

dena, desagertetazi eta harritzko paretari zementozko akabera emaita. Denaden, arkitektuen proiektua ez omen da segurua paperean bezala burutzea, Udalak aldatzen ahal duela oraindik, alegia.

★ KIXKUR ★
ILEAPAINDEGIA



Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA



ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

ALBARTETXEA
JATETXEA

Alicia eta Carmenek zuzendua
Antoiu 26 - LESAKA

IGANTZI

Pala txapelketako finalak jokatu ziren

Mikel Retegi, Javier Gerra, Juanmi Etxeberria eta Angel Mari Irigoien txapeldun


OSKAR TXOPERENA

Aspaldi xamar jokatu baziren ere, ez ditugu aipatu gabe utzi beharko herriko pala txapelketako finalak emaitzak. Daki-zuen bezala bi mailetan jokatu zen.

Bigarren mailan Juanmi Etxeberria eta Anjel Mari Irigoienek lortu zuten txapela, Miguel Angel Eugi eta Juan Mari Arburuaren aurka. Lehenbiziko mailan berriz, Mikel Retegik eta Javier Gerra geratu ziren txapeldun, Raul Zelaieta eta Jose Javier Urtzegiri irabaziz. Ondotik, sariez aparte giro ederreko afaria eskeini zien Biltoki elkar-teak parte hartu zuten pilotari guztiei.



Palan jokatu ondoren, afari ederra Biltokin



Sekulan ezagutu ez diren tamainako harri erauntsia

Harri erauntsi izugarria

Abuztuaren 10ean, arratsaldean, harri erauntsi ikaragarria bota zuen Igantzin. Hagitz bero haundia egiten zuen eta zerbait hasiz gero kazkabarra edo botako zuela

pentsatzekoa bazen ere, Igantziko zaharrenak ezagutu ez duten tamainuko harriak bota zituen. Arrautzeen tamainutik gorako harriak bota zituen gehienak. Kalte haundiak izan ziren zenbait kotxeren kristalak hautsiaz eta txapak mazatuz.

Espero dezagun urte aunitzetan horrelakorik berriro ez ikustea. Udako kontuak.

□ 2.163 izan da Igantziko Mendi Bizikleta taldeak zozketatutako mendi bizikletaren zenbaki sari-tua.

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42

LESACA

KOXXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESACA**

Sagardotegia
Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

IGANTZI

Irailak 26, 27, 28, 29 eta 30ean

Larunbata, 26

12etan, txupinazoa.; **12,30etan**, Arku jaurtiketa CLUB OSTADAREN eskutik; **4,30etan** 'Nafarroako Aurrezki Kutxa' gymkana txapelketaren finala; **6etan** 'Miguel Elizalde Memoriala' txirrindula lasterketaren amaiera; **7etan** Berako ZIZKUITZ txaranga; **12,30etan** IZOTZ taldea.

Igandea 27:

12etan Herri Kirolak (Arraiotz, Lesaka eta Arantzaren artean); **4,30etan** XIII. Artzai Txakur Lehiaketa; **7etan** Bertsolariak: PEÑAGARIKANO, LIZASO, MAÑUKORTA eta EUSKITZE. Gai Jartzailea M. AROZENA; **Arratsalde eta gaeuz** ARKAITZ.

Astelehena 28:

Egun guzien haurrentzako jokoak; **10etan** Plater Tiraketa; **11etan** Pilota partiduak (Haurrak); **5etan** partiduak (ZAPIRAIN-URRUTIA eta GOIKOETXEA-GOÑI); Dantzaldia IZOTZ.

Asteartea 29:

11,30etan Meza; **12,30etan** Dantza saioa; **4,30etan** partiduak (OTXOTeko-TABER-



NA eta IRIGOIEN-OIARTZABAL); **5,30etan** Fardo altzatzea, soka-tira eta Lataza harrijasotzailea; **10etan** EGAN.

Asteazkena 30:

11etan Pala partiduak (Profesionalak);

2etan Zikiro jatea trikitilarekin eta AROZENA eta EGANA bertsolariekin; **6etan** Poteoa trikitixarekin;

10etan MINXORIAK taldearekin dantzaldia.

BI - BIDE
Ostatu - Janaridenda

BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU

Tfnoa: 63 72 78
IGANTZI

ISIDORO FAGOAGA
Musika Eskola

1992ko Irailaren 7an Patronatuaren Juntak **Akordeoi Irakasle batendako lanpostua** konkurtsora ateratzea erabaki zuen. Oinarriak, Musika Eskolan bertan bil daitezke arratsaldetan.

Hautaketa Proba irailaren 18an eta arratsaldeko 3,30etan burutuko da.

Instantziak, irailaren 17a arratsaldeko 7ak baino lehen aurkeztu beharko dira.



JATETXEA
LA VILLA

Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu

Tfnoa: 63 72 90
IGANTZI



VOLKSWAGEN - AUDI
ZERBITZU OFIZIALA



Sampi Aragón



- ✓ Garbikailu Automatikoa
- ✓ Turismo eta furgonetentzako programa ezberdinak
- ✓ Tapizeria eta barnekaldeen garbiketa

ETORRI ETA PROBA EZAZU!

Tfnoa: 45 03 54 DONEZTEBE - Tfnoa: 58 05 93 ELIZONDO



Igantzik Udalak besta onak opa dizkizue
Igantziar eta bisitari guziei

Finalera iritsi ziren baina...


600 kilotako herri kirol taldea azken postuan gelditu zen Lesakan

MIRARI, AMAIA eta MARTA

Arantzatar mutilen herri kirol taldeak 600 kilotako txapelketan finalera iristea lortu zuen, Etxalarren egin zen final aurreko ekitaldiaren ondoren. Lesakan jokaturako finalean ordea, ez ziren uste bezain ongi aritu, tiraldi guztiak galdu bait zituzten. Basaburuarekin jokaturakoak izan ezik; hala ere, puntuen arabera azkenak gelditu ziren.

640 kilotan kanporatuak

Bertze alde, proba konbinatua eta 640 kilotako sokatira txapelketan, Bera, Lesaka eta Arantza artean jokatu dira kanporaketak, azkenik,



Gazteluak, kotxeak, antzerkia, etabar haurren egunean

hiru ekitaldiren ondoren, Arantza kanporatua gelditu delarik.

Besten aipamena

Dagoeneko aspaldixko akautuak izan arren, komentario bat merezi dute

aurtengo Amabirjineko bestak, zenbait gauza aipagarri izan baitira; larunbateko kontzertuaren arrakasta, haurren egunean jendearen partehartzea, herri bazkariko giroa...

□ **Frontoia** estreinatutako dugu berriki, nahiz eta guztiz bukatua ez egon.

□ **Sokatira** eta proba konbinatueta nesken taldea prestatzen hasi da heldu den konpetiziorako.

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA



HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

ALKOHOLAREKIN
ARAZORIK DAUKAZU?
AGIAN "ALKOHOLIKO ANONIMOAK"
LAGUNGUAL DIZU!!
Tfnoa: 24 24 44

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

SARA

Bestak ordaintzeko etxez etxe biltzen dute dirua gazteek

Honela, aurrekontuaren ehunetarik hiruetanogoa lortzen da

OLHAIN ELKARTEA

1991ko bestak gutti gora behera 200.000 libera gasta ziren. Gazteek eskea egiten dute etxez etxe, auzoz auzo: gisa huntan Saratarrek parte hartzen dute zuzenki besten antolakuntzan. Erran behar da gainera Saratarrek beren bihotz ona beti erakusten dutela zeren gastuen ehunetarik hiruetanogoa diru emaitza horieri esker ordaintzen da. Bertzalde larunbata arratsesko gaupasak badauka bere garrantzia baita ere lekuaren gainean ospakizunetarik landa egin eskeek. Horregaitik dira igandetik asteazkena arteko ekitaldiak urrik eskaintzen. Beraz, bihotz biho-



Abuztuaren 23 ospatu zen XXX. Kontrabandisten Lasterketa

tzetik eskerrak bihurtzen ditugu gazte guziei baita ere saratar haurride guziei.

Ikastola

Hilabete hunen 10ean ideki zauku berriro ama ikastola Saran, Omordia deitu pausa lekuak eskaini

gela batean (errebote berriaren ondoan).

Orai danik bizi luze bat desiratzen diogu ikastolari eta eskerrak bihurtzen gurasoeri gure hizkuntzaren alde erakutsi duten atxiki-menduarengatik.

Besten karietarat, Olhain Elkartearen babespean ikastolak atxikiko du bi egunez ostatu (larunbata eta asteazkenean) eta hori "Arraya" jatetxeak utzi atarian.

Akelarre

Irailaren 19an Akelarre Ostatuan (Añimainean) egingen da Zerrikume jatea arratsaldeko 2etan.

80 liberetan izanen da eta txartelak salgai dira Saran Herriko Etxeko edantegian eta Akelarre ostatuan.

Biharamunean Larrungo ibilaldia iraganen da eta mugaz bi aldeetarik parte hartuko dute agian bertze urtetan baino gehixeago...

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

JOSUNE eta AINHOA Trikitilari Eskola

- ☐ Trikitixa
 - ☐ Pandereta
 - Kantu Zaharrak
 - Hanka eta buru
 - Irrintziak
 - ☐ Kastañuelak
- Solfeorik ez da behar



IRAILETIK AINTZINERA

ELIZONDO ▶ BAZTAN IKASTOLAN
SUNBILLA ▶ LEKU - EDER

Apuntatzeko , 451596 Tfnoa.

San Migel bestak, hilaren 25, 26, 27, 28 eta 29an

Gazte bat bi zaharren kontra desafioarekin hasi eta bertze 5 egunez luzatuko dira bestak

TXEMA URROZ

Irailak 25, ortzirala.


Arratseko 8etan txupinazoa; 9etan pazinzopak; 12etatik 3etara dantzaldia Ramontxorekin. Goizalde-
ra gosaria gazta eta ardua.

Irailak 26, larunbata.

Eguerdiko 12etan mus txapelketaren hasiera. Ondotik herriko gazteen artean aizkora apostua. Arratsaldeko 5etan antzerkia; 8etatik 10etara trikitixa saioa Sunbillako trikitilariekin. 12etatik goizaldera gau-pasa Gaubela taldearekin.

Irailak 27, igandea.

Eguerdiko meza ondotik frontoi berriaren inaugurazioa izanen da, be-
deinkazioa eta aperitiboa-



rekin. Ondotik pilota partidua: Larraioz eta Apeztegia, Leitza eta Almandozen kontra. 6etan, lehen mailako afizionatuen arteko partidua: Retegi III eta Satrustegi, Errandonea eta Urrutiaren kontra. Arra-

tsalde eta gauzez dantzaldia Gaubela taldearekin.

Irailak 28, astelehena.

Eguerdiko 12etan mus txapelketaren finala. Arratsaldeko 5etan haur jokoak, ondotik txokolatada. Arratsaldez eta gauzez

dantzaldia Gaubelakin.

Irailak 29, asteartea.

Eguerdian meza nagusia. 1etan aizkora apostua, Patxi Mindegia eta Jose A. Loiarte, Antonio Jaunarena eta Karlos Mindegiaren kontra. Lana: hamar enbor kanaerdikoak. 2,30etan herri bazkaria Lizaso eta Sarasua bertsolariekin. Arratsaldez eta gauzez Modesto giroa paratzen ari-
tuko da jendea nekatu arte, bestari bukaera emanez.

Karretera moldatzen

Saldiaстик Donezteberako karretera moldatzen hasi dira azkenik. Kotxeak nahiko golpatuak zeuden honezkero baina berandu bada ere egin dute.

12
Ostatua
Amezitia 12, Tfnoa: 450153, DONEZTEBE

m FOTO MENA ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

BEINTZAKO OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA LABAEN

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu

ASKIN OSTATUA
Bokadillo eta Plater konbinatuak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

TXOKO erretegia
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

Elgorriagarako bidean azera egin nahi da Plan Trienalean

Udalak 1993 eta 1995 urteen artean aurreikusitako inbertsioak aurkeztu ditu

TXEMA ALDABE

Udalak, 1993-95 Hirurteko plangintzan edo Plan Trienalean sartzea erabaki du, urte hauetarako aurrez ikusten diren obra garrantzitsuenen berri emanez. Hauen artean, Leitzarako bidean, Elgorriaga eta Donezteben artean azera edo espaloi bat egitea da obrarik inportanteena. Baita ere, ur deposito berria egin nahi da, gaur egunekoaren ondoan. Eraberean, herriko ur eta saneamendu sareak moldatu nahi dira eta herriko bideak pabimentatu.

Bertzalde, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak fitxa bat aurkeztu behar du, udal lokal bat sede bezala egokitzea nahi badu.

Zinema denboraldia defizitarekin

1991-92 denboraldiari dagokion zinema denboraldia 889.718 pezetetako



Correosek bulego berria estrenatuko du denbora laburrean

KARMELE Argazkia

defizitarekin bukatu da. Diru sarrerak 2.067.300 pezetetakoak izan dira eta gastuak, 2.957.018takoak.

Correoseko bulego berria

Bordatxo dantzalekua-ren behekaldean Correoseko bulego berria egiteko baimena eman du Udalak. Baimena hau eman ondoren 60 egunetako epea dago obra burutzeko.

San Miguel auzoko bestak, 26 eta 27an

San Miguel auzoko bestak ospatuko dira hilaren 26 eta 27an. Honetarako 85.000 pztako dirulaguntza eman du Udalak, erraldoi eta buruhaundiak eta eskolako frontoia erabiltzeko baimenaz gain, bestetako Batzordearen eskakizunaren ondoren. Beraz, ongi pasatu.

W ttipi-flash

□ **Musika kioskoa** haunditzeko asmoa du Udalak. Ezaugarri tekniko berriak jakin ondoren, guttienez hiru aurrekontu eskatuko dira eta inbertsioa 1993ko aurrekontuan sartuko da.

□ **“Muestra Joven de Popo-rock 92”** programaren barnean, musika jaialdia izan zen irailaren 12an, «Gandalt» eta «Moho» taldeekin.

□ **Juan Jose Urtxulu** tegiren esku izanen da eskolako garbiketa zerbitzua, hilabetero 300.000 pztaja soko dituelarik lan honegatik.

□ **Kazkabarrak** eskolan eragindako kalteak ez dira izan nolanahikoak. Frontoian, gimnasioan edo irakasleen etxeetako itaixurak moldatzeko, zenbaitetan teilatu berria paratu behar da.

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezitia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Supermerkealdiak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

ARROPA K



AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

EUSKARA BATZORDEEN Berriak

Bortzirietako

Euskara

Mankomunitatearen

Argitalpena

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

EUSKARA AURRERA



Euskararen transmisio kanpaina eta Matrikulazio kanpaina hastear

Bigarren ale honetan, ikusiko duzun bezala, hurrengo egunetan garatuko diren bi kanpaina ezberdin baina hagitz lotuak aurkezten ditugu: Euskararen transmisio kanpaina eta Matrikulazio kanpaina.

Lehendabizikoaren bitartez, belaunaldiz belaunaldi euskarari eustek duen inportantzia azaldu

nahi dugu. Gurasoei bereziki zuzendua dago, horietxek bait dira seme-alabei euskara ematen ahal dietenak. Gainera, gurasoak ere euskara ikastera edo alfabetatzera anima daitezten lortu nahi dugu.

Bigarrena, berriz, Bortzirietako Euskaltegiak urtero egin ohi duen kanpainak da, oraindik euskaraz ez

dakitenak edo alfabetatu nahi dutenak matrikula daitezten. Aurten, euskaltegiak duen egoitza berriarekin, Matxinbeltzenearekin, oraindik gustorago arituko dira ikastera animatzen direnak.

Beraz, erne egon, ez galdu euskararekin aintzinera joateko aukera eta hurrengora arte.

Hementxe duzue **Euskara Batzordeen Berriak** gehigarriaren bigarren alea. Lau orrialdetxo hauetan euskararen inguruan Bortzirietan mugitzen denaren berri ematen saiatuko gara, Euskara Batzordeen lana ezagutzera emanez eta sortzen diren berrietaz informatuz.


Bortzirietan euskarak dituen arazoak plazaratu nahi ditugu, eta gainera, bere inguruan gertatzen diren berri pozgarriak ere emanen ditugu eta salatzekoa dena salatuko dugun moduan, txalotzekoa dena txalotuko dugu.

Aukeratu ditugun sailen bitartez Bortzirietan ezagunak edo ez hain ezagunak diren pertsonen eritziak hurbilduko dizkizuegu, eta interesgarriak diren pertsonaiekin elkarriketak egingen ditugu, baina dena hain serioa ez izateko, azkeneko orrialdean aurkituko dituzue **denborapasa** eta **liburuak** sailak.

Beraz, ahal dugun neurrian zure eskuetara ailegatzen saiatuko gara euskararen inguruan sortzen denaren berri izan dezazun.

Berriak

Roki Pumar: «Haurrak euskaraz hezitzea guzion onerako da»



AITOR

Börtzirietako Euskara Mankomunitateak bertze euskara zerbitzuekin batera euskarren familia bidezko transmisio kanpaina martxan jarri du.

“Igo itzazu euskararen trenera” dioen kanpaina gurasoei zuzenduta dago eta helburu bikoitza du: familia euskaldunetan berezko hizkuntza ez ukatzea eta euskaldunak ez direnetan euskarazko

ereduan eskolaratzea haurrek ikas dezaten. Hau dela eta, Rokirengana hurbildu gara. Emigrante galiziarren seme honek bi ume ditu euskaraz ikasten, eta berak ere euskara ikasten du Börtzirietako Euskaltegian, aspaldian lantegian hasitako bideari jarraituz.

EDURNE REKONDO

Euskara ikastea garrantzitsua iruditzen al zaizu?

Dударик gabe. Nere ikuspegitik behar beharrezkoa da. Hemen bizi gara eta hizkuntza bat dago hemen. Orduan denok ikasi beharko genuke edota ikasten ahalegindu guttienez. Tokian tokiko bizi-moduan maila guzietan integratu behar duzu, bertze herrialde batetara migratuz gero adibidez, eta horretarako bertako hizkuntza da tresna-

rik egokiena.

Euskara ikas dezake politikoki identifikatzen ez den pertsonak?

Ziur nago baietz. Zaila baldin bada ere oreka bilatu behar da. Euskara, Euskal Herriko hizkuntza izanik, komunikatzeko bide bat da, baina “arma politikoa” bezala erabili ohi da maiz, kontrako jarrekin sortaraziz. Garbi dago jokabide hauek urrundu beharko genukeela.

Non bizi garen kontutan hartuz, kul-

tura eta hizkuntza bera ikasteaz gain, defendatzen saiatu beharko genukeen maila guzietan, eta hortaz oharterazi behar zaio jendeari.

Haurrak eskolara bidali behar eta nola erabaki zenuen euskaraz burutuko zituztela ikasketak?

Kanpotarren semea izan edo ez, nere bi semeak hemen jaio dira, eta zein da hemengo hizkuntza? euskara, noski. Ondoren haxe galdegiten diozu zeure

buruari: nere semeek euskaraz ikasteak ze traba sortzen dit neri? Ze arazo izan dezakete nere semeek euskaraz ikasteagatik? eta erantzuna garbi dago: bakarrik ere!! Kontutan har ditzagun bertze arlo batzuk, lan eskeintza posibleak, mutikoen integrazioa... Alde guzietatik begiratu onerako da. Edukin aldetik, erderazko eredu adina ikasten dute, gaztelera euskara bezain ongi menperatu gainera.

Beraz, zalantzarik ez?

Ez. “Euskara ez dutela ikasi beren gurasoek gogoko ez zutelako” ez nuke semen ahotik aditu nahi. Nere seme erranen dute “euskaraz eta gazteleraz dakit, eta erabakitzeok aukera nere esku dago”.

Orduan, euskaraz ez hezitzea, marjinalatzea litzateke?

Ez dakit marginalatzea suposatuko lukeen, baina bizi diren tokian aintzineratzearen ahalik eta gehieneko ahalik ateratzeko posibilitatea ukatzea bai. Hemendik 10, 15 edo 20 urtetara nola egonen garen ez bait dakit.

Berriak

Txaloketa



Euskara ikastaroetara animatzen diren gurasoak, euskararen etorkizuna soilik haurren eskuetan ez dagoela

ohartu direlako, eta beldurrak edo aitazkiak alde batera utzita, ikasteari edo dakitena hobetzeari eman diotelako.

Herriko Plaza

Euskara eta euskal kultura bul-tzatzea eta indartzea dira ahalegin haundiz lanean ari diren guztien eguneroko betebeharra.

Azken urte haue-tan eman diren pau-soak garrantzi haun-dikoak izan badira ere, oraindik gauza-tu behar direnak ez dira gutti. Bide ho-netan segitu nahi izanez gero denon esku dago herrietan euskararen egoera normaliza dadin, gu herritar guztiok bait gara zera honetan protagonista printzi-palak.



Euskara herriko xoko guztietara zabaltzea nahi badugu gure esku dago hori lortzea, herria eta euskara gureak dira eta.

Orain ez naiz lan talde guzien izenak eta hauen eginbe-harrik aipatzen hasiko,



Egunkariak orohar, Bortziriak eskualde euskaldu-na izanik, bertako informazioa erdara hutsez edo neurri

haundi batean erda-raz ematen digute-lako, gure herrietako berriak euskaraz ja-sotzeko eskubidea galeraziz.

MARIJO AGIRRETXE
IKA-ko Irakaslea

Denok har dezagun parte

begi bistan daude-lako, baina gustatuko litzaidake lagun guztiek egindako lana eta emandako laguntza eskertzea, horretan eusteko animatuz.

Oraindik animatu ez direnei ere zerbait erranen diet, nahi

izanez gero edozein ekintzetan parte har-tzeko aukerarik ba-dagoela. Horretan gabiltzanok desiotan gaude ahalik eta jende gehien anima dadin parte hartuz eta ideia berriak emanez.

Animo!

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

Ikastaroak 8, 4
edo 2 hilabetez

• Maila guztiak
astean 4 egunez
(8 ordu)

• Alfabetatzen
astean 8, 6 edo 4
ordu

• EGA
larunbatetan
4 ordu
Astean
8 ordu

Matrikula
irekia
Urriaren
2a arte.

Informazioa:

637796

631105



Berriak

Liburuak



«Joanak joan»

Egilea: Jon Etxaide

Argitaratzen du: Erein-ek

358 orr., 1.000 pzt.

Zubereraz idatzi-
riko elaberri honek,
Zuberoa, Zuberota-
rrak eta Pierre Topet
Etxahun Barkoxtar
bertsolaria hobeki
ezagutzeko aukera
eskaintzen digu.



«Babilonia»

Egilea: Juan Mari Irigoien

Argitaratzen du: Elkar-ek

229 orr., 1.000 pzt.

Hiru belaunaldie-
tan zehar baserri ho-
nek ikusi behar izan
zituenak. Karlista-
liberalak, zaharrak-
gazteak, lurrarekiko
harremanak ager-
tzen dira euskaldun
famili baten istorio
honetan.

Denborapasa

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion
laukira. Beheko lauki-aula osatu ondoren, Bortzirietan bilduriko erran
zahar bat ageriko zaizu.

Sorgina.

Aurkako, kontrako.

Zehar jarri.

Igela.

Subjuntiberaz, zituen.

B	1	E	7	D	3	A	1	B	7	
D	8	E	6	D	2	B	5	E	5	
A	7	D	6	A	2	D	4	B	6	
E	1	A	3	E	3	D	1	D	5	A
D	7	B	3	A	8	B	4	E	4	A

	1	2	3	4	5	6	7	8
A								
B								
D								
E								

AURREKOAREN SOLUZIOA

Martxo lorea urde lore

Apiril lorea urre lore

Maiatz lorea, ezetz baino hobea

Periko Grazeneari omenaldia eskeini zitzaion hilaren 6an

Elgorriagan jaio zen duela 62 urte erremontelari ohi ospetsua



TXEMA ALDABE

Periko Grazenea orain dela 62 urte Elgorriagan jaiozako erremontelaria dugu. Konpetizioetan par-

te hartzen berandu xamar hasi bazen ere, bitarte horretan pilotaren munduan ospe haundia lortu zuen eta hainbat pilotalekutan barrera ibili ere aunitz urtez.

Gaur egun Irunen bizi da Periko eta irailaren 6an



Elgorriagako herriak omenaldia goxoa eskeini zion.

Igande goizean pilota partidua jokatu ziren eta segidan Doneztebeko dantzarien saioa, bertsolariak eta zenbait oroigarriren banaketa egin zen. Nafa-

roako Gobernuak ordezkariak eta Pilota Federaziokoak ere bertara hurbildu ziren Perikori beraien esker ona erakustera. Azkenik, eguerdian bazkaria egin zuten giro ederrean.

**IRAGARKI HAU
5.200 ETXETAN SARTU DA**

**ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO**

**ERLAJAZIO
KURTSOA**
Zertarako?

- X Bizi garen bitartean erlajatzeko ikasteko.
- X Gure bizi indarra haunditzeko.
- X Mundura irekitzeko kapazitatea gehitu.



Lekua: Donamariako Benta
Egunak: Astearte eta ortzeguna
Ordua: 6-7,30etara eta 8-9,30etara
Hasiera: Urriaren 1ean

Izen emateko Tfnoa: 450725 / 450708 - DONAMARIA

MALERREKA

Udazkena kultur aktibitatez betea dator

Benetan programa interesgarria Malerrekako Euskara Zerbitzuak antolatuturikoa

Bertsolariak, Kirol Ikuskizunak, antzerkia, bertso-afariak, musika kontzertuak, erakusketak... Gozatu nahi duenak badu aukerarik udazken honetan.

Urrotz

Irailaren 26an eta arratsaldeko 5etan, Takolo, Pirrits eta Porrots pailazoen ekitaldia.

Saldias

Urriaren 24ean eta arratsaldeko 5etatik 8,30ak bitarte herri-kirolak:

Aizkolariak:

- Mindegia-Larretxea
- Mindegiaren semeak

Pilotariak:

- Errandonea-Urrutia
- Sanz-Satrustegi

Emakumeak

Herri-kiroletan

Sokatira

- Sunbilla, Basaburua, Bera

Proba Konbinatua

Koxkorrak, Txingak, Zakulariak, Lasterkalariak eta Arpanlariak.



Zortzietatik aurrera Bertso Afaria Euskitze, Peñagarikano, Unai Iturriaga eta Ion Maiarekin.

Gaueko 11etatik aurrera Trikitixa saioa Sunbillaiko Ainhua eta Idoiarekin.

Doneztebe

Azaroaren 13an goizean zehar eta frontoian ondorengo ekitaldiak ikusi ahal izanen dira: Iturengo

Txistulariak eta Joaldunak, Malerrekako artesauak: Harotz, kaikugila, talogile, galtzerdigile... Eguerdialdera bertso-saioa Lizaso, Egaña, Sarasua eta Estitxu Araozena. Gai jartzailea Eusebio Fagoaga.

Aurtitz

Azaroaren 14ean arratsaldean, Txalaparta saioa, gaztain eta talo jatea eta trikitixa soinua alaitzeko.

Sunbilla

Abenduaren 5ean eta gaueko 11etatik aintzinera rock kontzertua: Kanka, Pottoka eta Balerdi-Balerdi.

Guzi honetaz gain, eta Euskara Zerbitzutik gaztigatu digutenaren arabera, herriz herri Euskarari Buruzko Erakusketa Itinerantea ikusteko aukera ere izanen da.

IRAGARKI HAU 5.200 ETXETAN SARTUDA

**ZUREA ERESARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO**


Bertso eskola martxan jarriko da Urriaren 3an

IBAN ISASI

Bertso eskolaren lehen klasea izanen da urriaren 3an, arratsaldeko 8etan, eta dagoeneko hamabi lagunek eman dute izena. Urritik ekaina bitarte izanen da ikastaroa eta Bittor Elizagoien izanen da irakaslea. Umeentzat talde berezia ere sortuko da, seguraski. Jende gehiago apuntatzeko, deitu 450454 telefonora.

Aurtizko ostatua

Hasiera batetan Maria-no Gaialderi arrendatu bazi-tzaion ere, honek Aurtizko



ostatuaren arrendamendu-rako eskatu ziren oinarriak bete ez dituela eta Iñigo

Igual, Bizente Goñi eta Josu Esnaleri eman die. Bi miloi ordaindu beharko dituzte

kopuru fijo bezala eta hila-betero 80.000 pezeta.

ttipi-ttaparentzat dirulaguntza

Ahobatez onartu zen 218.439 pezetako dirulaguntza bideratzea. Bi zatitan ordainduko da, Talde Berriaren kontzejalaren proposamena onartuz, bertzela, EAkoek dirutza haundiegia zela erraten bait zuten.

Periko Mindegia

izanen da Iturengo Udalaren ordezkaria Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatean.


ZUBIETA

JUAINAS

Abuztu oso bat joan delarik, idazteko ohitura go-gortu zaigu; zaulitu behar, orain... zer izan den? Betikoa. Uda, bestak eta fiestak, eguraldi kaxkarra ala sargori, gutxietan "sanoa", turistak, han eta hemenka...

Ostatuaren irekitzea

Gezurra badirudiere, uda hontan eman den gauza apartekoa, hainbeste den-bora iragana sekulan emanen ez zen aldeko apostuak bait ziren, jada. Inaugurazio formala eta guztiz eman ziguten ostalariek, konbitea... pintxuk eta tragua. Argazki kronista eduki genuen, Aurtizko Ramontxo, hain zuzen ere, hark ateratako fotografiak ostatuan bertan direla.



Amarjinetako festak ailegatu baino aste bat lehentxoago ireki zuten, kriston lanarekin egiteko hasiera... zeren, jendaira egon zenik esaterik ez baldin badago ere, giro majua bai, dudarik gabe; inguruko jende asko eta, plaza, dantzariz betea. Dantzarik, ki-

rolarik, jokuk, bertsolarik...

Eta ale hontan ez bada, argazki gehiegi dauzkagulako aspaldiko partez, alegia, besteren baten erakutsiko dugu uda honetan eman den errebelazioa: **Petrixengo Linok** duen gauzak antolatzeak abilezia. Neretzat dut mutiko horrek

animatzaile kulturalarako preziorik ez duela: euskera ikastera etorri zirenekin jor-ratu zuen bere alor hori. Behin, bikoteen afaria; hurrengoa, Mendaurreko akanpada, hori bau, fiesta egunean, eta zortziak aldera, Jon Mikelenganako diana-kuelgea somatzen zen, batez ere. Hura ez balego, non geratuko ziren goizeko mugidak?

EPA eta INEM ikastaroak, bietan posibilitateak ikusten direla. INEM-eko horietan eraikuntzak mantentzeko eta adinduak zaintzeko moduak erakutsi nahi direla. EPAkoetan berriz, bi proposamen egin dira, nekazaritza biologikoa eta zurgintza-artistautza hastapenak.

ERATSUN

Ongi pasatuak, ongi kontatu



ANTTON ERKIZIA

Herriko pestak joan dira. Programa hemen azaldu nahirik ere, berandu gabiltza, baina aipatu gabe ere ez dugu utziko. Aurtengoak gainera aste osoko pestak izan bait dira Eratsungoak, asteartetik iganderaino, alajaina!

Egia esateko, pesta usaina lehendik sumatzen hasiak ginen herrian, "motorrak" berotzen edo. Abuztuaren azken igandea, pesta

egun eder bat izan genuen Eratsunen. Elizan sendotzak edo konfirmazioak zirelako, Iruñeako Cirarda artzobispoa zetorren herrira, eta hori dena aprobetxatuz, haurrentzako parke - jolastoki txiki bat inauguratzen genuen. Frontisaren atzekaldean, toki txiki bat, baina txukuna. Oso polita joan zitzaien igande hura. Halako eguraldia izan genuen ere.

Lastima! Amabirjinaren egunean, pestatako egun



haundian, eguraldiak ez zigen batere lagundu ordea. Lastima, handikotz! Halako pillota partidu ederra presatua genuen egun hortan atsalderako (Retegi anaiak,

Martinikorena eta Soroa III), eta dena bertan geldirazi beharra. Lainoa eta euria egun osoz. Udazkena preziki egun hortan hasi behar horrek ere!




Ama, begira ezazu...




...leihotik plazara

ANTTON Argazkiak

Aurten 75 urte Leitzeko Udaletxe berria izaugaratu zutela




Udaletxe zaharra, 1745garren urtean bukatu zen.



Zaharraren gainean, gaurko Udaletxe berria eraiki zuten, 1917. urtean inauguratua

Marraskia: Koldo FAGOAGA



Berria Inauguratu zen eguneko Udal-gizonak. Ezkerretik eskuinera, zutik: Joanes Martikonekoa, Martin "Inperu" Irategiko aittona, Anttonio Unaienekoa (idazkari), Miel Tomax Etxeberrikoa, Urrustimiltxokoa, eta Artxikoneko Bordakoa. Jarrita: Fraxku Joandegikoa, Sebastian Aienekoa (alkate) eta Tomas Joanabordakoa.

Harrobiak, industrialdea eta irrati berria:

Oraintxe bertan pil-pilean dauden gaiak

ANTTON ERKIZIA

Harrobiak, harri kante-rak: Erasotekoari Diputa-zioak ezetza eman zionetik, bi proiektu berri azaldu dira leku berean, Kordau inguruan. Eta beste bi eskaera, Berines baserri ingururako, Goizuetako bidean.

Industrialdea: aspaldiko gaia, baina sekula baino indar haundiagoz hartu duela Udalak dirudi. Larbando inguruko asmo zaharrak bariantea eskatzen duelako, begiak orain Urtoko zelaie-tan ezarritadaude. Bitartean, tailer eta almazan franko zai diraute.

Irrati bat martxan ezar-tzeko asmo osoak daude, Leitzan eta Leitzarako, eus-kara zerbitzuaren eskutik.

Inguruarte futbol txape-lketa bukatua da aspalditxo, baina ez akitu batzuren azkurea, "Xaharrak" iraba-zi zutelako.

Aurrera futboleko bat-zordea dena aldatu egin dute

aurtengoan. Joxemari Raz-kin eta Iñaki Salbarredik osatzen zuen "bikote histo-rikoak" utzi egin du, eta Elias Alonsok hartu du ardura. Juantxo Larraia da entrena-dore.

J.I. Barberia kontzejala kendu egin dute udal kargu gehienetatik, EA eta UIEn botoz. Mendia, osasuna, hi-rigintza eta hazienda komi-sioetatik kendu, eta Musika Komisioan soilik utzi dute.

Silvestre Zubitur izen-datu du alkateak teniente alkate berri, Luziano Ola-noren lekuan.

Mila Erbiti, sei urte lu-zez preso eduki duten Ola-berriako alaba aske utzi dute. Ongi etorri beroa izan zuen herrian, etxera itzultze-rakoan.

Ikastolakoak zirenak eta orain eskoletan ari ziren bost irakasle-andereinori kon-tratua beste urte baterako berretu dio Diputazioak azken orduan.

Nere esker onak izenak ezagutzen lagundu didatenei. Argazkia Udalarena da, norbaitek kopiarik nahiko balu.

GOIZUETA

Etxebizitzetako buruzko inkestaren datuak ezagutzen dira

Gehienak, terrenoak erosteari eta kuartela saltzeari ematen diote lehentasuna

ESTEBAN AROZENA

Argi ikusten da etxebizitzaren sozialaren premia badagoela eta behar horri erantzun nahian herritar batzuekin bildu zen udala orain hiruzpalau hilabete, beraien terrenoengatik eskeintza ekonomiko bat luzatuz. Akordio batera iritsiz gero, Nafar Gobernuaren eskutik jarriko lituzke udalak aipaturiko lurrak, era horretara etxe berriak eraikitzearen prozesuari hasiera emanez.

Dena den, elkarrizketak ez dute fruitu gehiegirik eman oraingoan eta lurren jabeen sujerentzia jasoz udalak bereak dituen etxeak saltzeko posibilitatea azter-



tu asmotan dabil. Horretarako eta garrantzizko erabakia izan daitekela pentsatuz herritar guzien eritzia jakin nahi izan du lehenik, inkesta ere burutu duelarik azken aste hauetan.

Inkesta honen erantzun-

ak ezagutzen dira dagokienak: etxez etxe banatutako 139 orrietatik 114 bildu dira, hauetatik 64k terrenoak erosteari eman diote lehentasuna; 65ek "kuartela" saltzeari aldekoak dira; "Zubimusu" saltzeko 44ak esa-

ten dute; "Azoka" 28k; "Plazako Eskolak" 29k eta Medikuen etxea 21ek. Kontutan izan erantzun bat baino gehiago emateko eskubidea bazegoela.

□ **Batzelonan** garaipena lortutakoan beste pauso bat emanen du Iñaki Lujanbiok pilota munduan; hila-bete honetan debutatuko du profesionalean Eskularin.

□ **"Basahuntz"** Ehiztari Elkarteak burutu berria du bere ohizko batzarra. Jabier Lujanbiok segituko du presidenteari postuan.

□ **133.405.934** pzta da aurtengo udalaren aurrekontua, azken plenoan onartutakoaren arabera.

ARESO


Antonio Alustiza bigarren suertatu zen Uharte-Arakilen

Horrela, Euskal Herriko Txapelketarako txartela lortuz

JUANA MARI SAIZAR

Uharte-Arakilen abuztuan 30ean ospatutako Artzai Egunean herritar batek ere parte hartu zuen, Antonio Alustizak, bere "Argi" txakurrarekin. Antoniok bigarren postua lortu zuen, lan oso ona eginez, baina bigarren frogan fallatuz. Prest zeuzkan ardiak paso ondoan, baina denbora bukatu egin zitzaion.

Nafarroako Txapelketa honetako bi hoberenak, aukera dute Euskal Herriko



Txapelketan parte hartzeko, irailaren 13an, Bizkaian.

Ez da lehenengo urtea Antoniok parte hartzen due-

la eta iaiz hobe jantzitako artzaiaren saria lortu zuen.

□ **Herriko** festetan oso eguraldi eta giro ona izan genuen. Kanpotar askok bisitatu gaitu. Aurtengo festa berdintsuak izandu dira, baina gauza berria izan genuen aurtengoa; Aresoko jubilatuek bazkari bat dohain izan zuten laugarren egunean, Udalak antolatua.

□ **Hirurogei** urtetik gorakoak 81 pertsona dira eta ez hirurogeitamar urtetik gorakoak.

Ardi eta behi azienda Sariketa burutuko da igande honetan Elizondon

JOSEBA

Irailaren 20an, igandean ospatuko da Elizondo "Ardi eta Behi Azienda Sariketa" ren ekitaldi berri bat. Orainarte bezala lehiaketa honetan Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko baseritarrek parte har dezakete. Baldintzen zerrenda eta gainerako xehetasunak Baztango Balleko Etxean daude ikusgai.

Nafarroako

Dantzari Eguna

Joan den asteburuan Nafarroako Dantzari Eguna ospatu zen. Larunbatean, Lizarra, Goizueta, Monteagudo, Tafalla, Lesaka eta Baigorriko dantzari taldeen saio eskeini zen.

Igande eguerdian, Baztango herri guzietan Dantza talde baten saioa ikusteko aukera izan zuten eta horren segidan, talde guziaz Elizondoko Plazan bildurik, Mariano Izetari omenaldi beroa eskeini zitzaion, Mutil Dantza eta Soka Dantza dantzatzuz. Eguna bukatzeko, eguerdiko 2etan, talde guziaz bazkaria izan zuten Elizondoko Merklatu Zelaian.



Aurtengoan azinda ederrak ikusteko aukera izanen da Sariketan



'Baztango Dantzariak' taldea izan da Dantzari Egunaren antolatzailea

Argazkiak: MENA

W ttipi-flash

□ **Uharte-Arakilen** ospatutako Artzai Egunean eta Artzai Zakurren proban, Fermin Irigoienek eskuratu zuen lehen saria 'Kubino'-rekin eta Patxi Etxeberriak 3. saria 'Lagun'ekin.

Ardi latxa burugorrietan, berriz, Azpilkuetako J.M. Irungaraik irabazi zuen lehen saria.

□ **Hautzaindegia** zabalik dago eta 18 hilabetetik gorako haurrak onartzen dira bertan.

□ **Abuztuan**, turisten dako prestatuak dauden baserri eta etxeek bete beteak ageri ziren.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**Udazkeneko moda
Arropa eta Teletan**



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ZUGARRAMURDI

Aurtengo bestak aspaldi huntan ezagututako hoberenak

Agorrilaren 30ean refeta ere ospatu ginuen

KORO eta MARGARI

Agorrilaren 30ean ospatu zen refeta. Besta hau batez ere herritar eta bestetan lanean aritu direnentzat egiten da. Arratsaldeko 2,30etan 150 lagun bildu ziren lezeko zikiro jatean. Bazkari hau lehen egiten zen zikiro jatearen iduritsuena da: jende ezagunak juntatzen dira eta erretiratzerakoan denak, musika aintzinean, soka dantzan igaten dira herrirat.

Aipatzekoa da aurtengo bestak aspaldi huntan ezagututako hoberenak izan direla jende eta animazio haundia izan delakoz.

Eliza moldatzen

Iaz *ttipi-ttapan* errana ginuen bezalaxe, besta ondotik hasi dire eliza antolatze-lanak. Aldamio animala batzuk jarriak dira eta orain zartatzen ari dira gero xuritzeko. Lan hau Urdazubiko "Construcciones Bengoetxea" k hartu ditu eta auzolan laguntzan egiten da.



Besta ondotik eliza zartatu eta zuritzeko lanak hasi zituzten

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ZUGARRAMURDIKO

F. J. ETXABE Tailerrak

Karburazio eta gasolina injekzioko sistemen
«puesta a punto»rako GAS ANALIZATZAILEA
eta gasoil injektorea konprobatzeko aparailuak
bere bezeroen esku daudela abisatzen du

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580338
ELIZONDO

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Irailaren 14ean eman zitzaion hasiera 1992-93 kurtsoari

Hirutanogei haur, zazpi irakasle eta gimnasia irakaslerik ez aurtengoan

ALIZIA OLAIZOLA

Hirutanogoi haurrek eman diote hasiera 92-93 ikasturteari. Iaz bezala 3 urtetik gorako haur guztiak eskolatuko dira, aurreko bat bakarrik. Zortzigarren maila bukatu zutenak 3 izan dira. Zazpi irakasle izanen dituzte Zugarramurdi-Urdazubi biko eskolan. Gimnasia irakaslerik gabe daude, Nafarroako Gobernuak kendu baitu eta gainerako irakasleek eman beharko dute.

□ **Jantzigintza** klaseak laster hasiko dira. Ikastaroaren arduraduna Berako Andoni Errandonea da eta irakaslea Anastasi Bidart.

□ **Abuztu**an uztailan baina turista gehiago ibili da, bai Dantxarineariko benetan, camping-ean, haitzuloetan eta logelak alokatzen dituzten etxeetan.

□ **Frantzialdean** kotoxeak ebatsi eta espainalderako dantxarinetik pasatzerakoan detenituak izan ziren zenbait algeriar.

□ **Telefono** hari printzi-



Udako oporrak bukatu dira

palenak lurpean ari dira sartzen eta datorren urtean se-

guraski egiten omen dira gainerakoak.

Eskeizari

jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARLA

ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - **ELIZONDO**

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO
BIDAIAK**

× HERRIAK
× MENDIAK
× TURISMOA
× TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUN

BIDAI
AGENTZIA

G.A.T. 2.015

EZKONTZAK

Isabelle Berrouet eta **Jean Pierre Chaldy**, Sara eta Hazparnekoa, agorrilaren 29an.

Elias Alzuarte Inda eta **Itziar Arregi Korteia**, Almandoz eta Burlatakoa, uztailaren 25ean.

Juan Tomas Santxotena Urrutia eta **Amaia Sarria Hado**, Erratzu eta Donibane Lohitzunekoak, abuztuaren 14ean.

Fermin Erro Irigoien eta **Aran-txa Hardoi Amestoi**, Irun eta El-betekoak, abuztuaren 15ean.

Juan Ignacio Azpiroz Arrizurieta eta **M^a Jose Goikoetxea Etxe-nike**, Elizondo eta Iruritakoa, abuztuaren 8an.

Sebastian Azpiroz Olaetxea eta **Koro Artola Erasun**, Berastegi eta Aresokoa, uztailaren 25ean.

Felix Telletxea Rekalde eta **M^a Jose Zubieta Manterola**, Oiar-tzun eta Lesakakoa, irailaren 5ean.
Jose Luis San Martin Lukanbio eta **Miren Lide Zinkunegi Arze-lus**, Doneztebe eta Donostiakoa, abuztuaren 22an.

Lupe Zubeldia Telletxea eta **Fermin Bidegain Soubelet**, Igan-tzi eta Baztangoa, uztailaren 18an.
M^a Jose Miguelena Telletxea eta **Iñaki Berho Apezetxea**, Igantzi eta Baztangoa, abuztuaren 1ean.
Marta Iguzkiagirre Urtxegi eta **Luis Javier Telletxea Pellejero**, Igantzi eta Lesakakoa, abuztuaren 27an.

Mikel Telletxea Inda eta **Kari Salgado Guinaldo**, Elgorriaga eta Elizondokoa, irailaren 5ean.

JAIO TZAK

Goretti Urrutia Azpiroz, Saldias, uztailaren 28an.

Bixente Londaitz, Saran, agorri-laren 25ean.

Dorleta Agirre San Vicente, El-beten, uztailaren 22an.

Jon Vicente Aznal, Gartzainen, abuztuaren 9an.

Ibai Igarabide Iparragirre, Erra-tzun, abuztuaren 10ean.

Xabier Danboriena Jaimerena, Zigan, abuztuaren 18an.

Martin Apezetxea Berho, Oronotz Mugairin, abuztuaren 26an.

Irantzu Alustiza Muniain, Are-son, abuztuaren 1ean.

Goretti Urrutia Azpiroz, Saldias-en, uztailaren 28an.

Aitziber Santesteban Bergara, Donezteben, uztailaren 25ean.

Asier Otxandorena Dorregarai, Donezteben, uztailaren 30ean.

Jon Andiarena Elizalde, Donez-teben, uztailaren 29an.

HERIOTZAK

Engraxi Iriarte Nabaz, Donezte-ben, uztailaren 28an, 72 urte.

Miguel Ziganda Goñi, Narbarten, uztailaren 27an, 68 urte.

Josefine Barreneche, Saran, 68.

René Dibar, Saran, 66 urte.

Florencio Iribarren Moya, Eli-zondon, abuztuaren 5ean, 73 urte.

Cipriano Arzalluz Arsuaga, Eli-zondon, abuztuaren 9an, 74 urte.

Jose Garate Urrutia, Iruritan, abuztuaren 9an, 75 urte.

M^a Concepcion Perez Martinez, Elizondon, abuztuaren 12an, 86 urte.

Domingo Etxeberria Arrijuria, Almandoz, abuztuaren 18an, 44 urte.

Dionisio Garde Garbalena, Leka-rozen, abuztuaren 21ean, 74 urte.

J. Ignacio Otxandorena Elizalde, Almandoz, abuztuaren 21ean, 72.

Onesimo Mortalena Sukilbide, Erratzun, abuztuaren 26an, 76 urte.

Tomasa Aleman Igoa, Zigan, abuztuaren 27an, 93 urte.

Luciana Arriada Larrondo, Arizkun, abuztuaren 29an, 85 urte.

M^a Ascension Maisterrena Oza, Elizondo, irailaren 3an, 84 urte.

Josué Esteban Cuadrado, Elizon-don, irailaren 5ean, 82 urte.

Joaquin Barandarin Labaien, Areson, abuztuaren 5ean, 70 urte.

Joaquina Onsalo Zabala, Areson, abuztuaren 9an, 91 urte.

Juan Antonio Sukunza Etxarri, Areson, abuztuaren 11an, 79 urte.

Engraxi Iriarte Nabaz, Donezte-ben, uztailaren 28an, 72 urte.

Josetxo Etxarte Elizondo, Igan-tzin, abuztuaren 8an, 64 urte.

Ixabel Alzuri Zozaia, Igantzin, abuztuaren 9an, 76 urte.



Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

AUKERA!!!

Bertizaranan, tailerra edo almazena egiteko nabea salgai.

Instalazio berria eta guztiz ekipatua. 280 m².

Tfnoa: 592251 (egun osoan)

Kirolaren egoera «kaxkarra» da bertako Udalen ustez

Bilera bat egingen dute hilaren 18an Beran, Nafarroako Gobernuari protesta serioa azaltzeko

Gure eskualdeko kirolaren egoera kaxkarra dela eta Nafarroako Gobernuari protestarik "gogorre-na" agertu diote berriki Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udal gehienek Baztan-goaren ekimenez. Dirudienez, gaur egungo gobernuak ez du onartzen aintzinekoak egindako kirol egitura eta, beraz, ez du plangintza haren ondorioz sortu ziren udal eta eskualdeko kirol koordinatzaileak ordaintzeko laguntzarik eman asmorik. Honetaz gain, hilaren 18an Beran bilduko dira Baztan-Bidasoako kirol zonaldea osatzen duten Udalak, behar diren neurriak hartzeko intentzioarekin.



ANTTON

Aintzineko legislaturan, Baztan, Malerreka, Bortzirak eta Leitzarango 25 Udalak poliki-poliki eskualdeko kirol egituraren sartzeari lortu zen; 1986an zazpi ziren egitura honetan sartutako Udalak, 11 hurrengo urtean, hogeitabi 1988an eta

25ak 1989an. Modu honetan, zonalde bakoitzean kirol koordinatzailearen figura sortu zen, eskualdeko (Baztan-Bidasoako) koordinatzailearekin batera.

Egitura honek, berehalako helburu batzu zituen, bertzeak bertze kirol aktibi-

tateen eta modalitateen gorakada lortzea. Epe ertaineko helburuen artean, emakumeak eta jende adintua kirol mundura hurbiltzea, baita galdua zegoen herri kirola berreskuratzea zeu-

bertze aldean segitzen du

ES



Konpetizio kirolak aintzinerara darrai, baina federatuak ez diren kirolak beherakada nabarmena izan dute

(ikastaroak, klub berriak, modalitate berriak, monitoare taldeak...) bidean gelditu dira.

Irtenbidea bilatzea ez da errexa

Egoera honi irtenbide on bat ematea ez da errexa, baina agian, hilaren 18an, Beran egin beharreko bileran etorkizuna zertxobait argituko da.

Halere, Bortzirietako kirol koordinatzailea izandako Mattari Altzuarteren ustez hiru izan daitezke irtenbideak.

Bata, udalek beren kabuz (subentziorik gabe), zonaldeko tekniko bat hartzea. Honek, luzera kontratazio fijoan egin behararen arazoa ekarriko luke.

Bigarren irtenbidea, koordinaketa klubaren esku uztea izanen litzateke, azken urte t'erdian gertatu den bezalatsu. Mattariren ustez, "irtenbide hau nahiko es-

den. Ekimen honetatik sortu zen Nafarroako Herri Kirol Federazioa, kirol honi bultzada nabarmena emanaz. Datu aipagarri bat emateagatik, 1991. urtean eskualde mailan egin ziren espartzimendu (konpetizioa ez direnak) kirol aktibitateetatik %55a herri kirol aktibitateak izan ziren.

Gaur egun, egitura egonkor baten faltan

Gaur egun, egitura hartatik «pixar» bat bertzerik ez dela gelditzen erran daiteke. Baztanen bakarrik dago zonalde mailako koordinatzailea eta eskualde mailakoak ere Elizondon kokatua du bere bulegoa – bien egoera ez dago batere finkatua –; beraz, Bortziriak, Malerreka eta Leitzarango kirol koordinatzaileak desagertu egin ziren 1991ean.

Nafarroako Gobernuaren kirol politika berria, kirol koordinatzaile municipalak kontratatzekeko diru laguntzarik ez ematea da eta ondorioz, udalen gainean gelditzen da langile hauen soldata.


Honek, pixkanaka, eskualdean antolatzen diren kirol ekintzen beherakada ekarri du, batez ere espartzimendu mailako kirolekin eta eskolatan antolatzen diren kirol aktibitateekin; 1989an, eskualdeko kirol koordinatzailearen desagertzearekin beherakada orokorra gertatu zen; 1990ean herrietako kirol aktibitateen beherakada gertatu zen, kirol koordinatzaile municipalak zonaldeko eta eskualdeko aktibitateak bere esku hartu bait zituzten. 1991ean berriz, Bortziriak, Malerreka eta

Leitzarango koordinatzaileen desagertzeak kirol aktibitateen beherakada nabarmena eragin zuen.

Garai hartan hasitako inizatiba berri pila haiek

Baztan - Bidasoako kirol aktibitateak *

* Subentziorik gabe eskatu zuten espartzimendu kirolei dagokio



Datu iturriak: Zonako Kirol Komisioaren Artxiboa
Nafarroako Gobernuaren Kirol eta Gaztedi Zerbitzuaren Artxiboa
Zonako Kirol koordinatzaileen memoria

Kluben zer diote?

1.- Nola ikusten duzu kirolaren egoera?

2.- Beharrezkoa ikusten al duzu kirol koordinatzailearen figura?



ELIAS ALONSO
Leitzako Aurrerako lehendakaria

1.- Leiza aldean, futbola, pilota edo txirrindularitza mailan kirola zer bait egiten da, baina beste kirolean gauza gutxi egiten direla iruditzen zait. Jendeak laguntzen du taldea animatzera joanez, baina Leitzak duen biztanlegoarekin uste dut pixko bat gehiago lagundu beharko zuela.

2.- Bai, uste dut beharrezkoa izanen zela kirol koordinatzailearen irudia. Batez ere, ideia berriak emateko eta klubetako jendearekin ideia ezberdin horiek elkartrukatzeko.



ANDONI GARBISU
Berako Gure Txokoako lehendakariordea

1.- Gaur egun kirola augean dago. Aktibitate aunitz egiten dira jende asko mugituz eta maila hortan mantentzea nahiko zaila ikusten dut gerora begira; haurren kopurua jeisten ari da nabarmenki eta talde kirolak gero eta guttiagora joanen dira seguraski.


2.- Kalterik behintzat ez du eginen kirol koordinatzailea egoteak. Klub mailan ez da horrenbertze nabari, gu konpetizio mailan ibiltzen bait gara eta hori bertze modu batetara antolatzen da. Espartzimendu kirolak egiten dutenak, eskolak, etabar nabarituko dute gehien bat.



J. EMILIO DEL RIO
Lesakako Beti Gazteko lehendakaria

1.- Bortzirietan egoera nahiko ona da, finkatua dago eta jende aunitz dago kirol egiten, batez ere Beti Gazte eta Gure Txokoak egiten duten lanari esker. Halere, zuzenean parte hartzen ez duen jendeak ez du sobra laguntzen.

2.- Koordinatzailearen figura ez da ikusten, kirolak klub mailan funtzionatzen duelako. Egoikiago ikusten dut diru hori egunero lanean dabilen jendeari zuzentzea, hau da, ordu aunitz sartzen dituzten entrenatzaile, pilota irakasle, etabarrei. Emakumeen kirolean ere lan egin beharko litzateke.



LANDER SANTAMARIA
C. D. Baztango direktiboa

1.- Kontua da Baztan mailan ez gaudela instalazio faltan, bopolikiroldegi, pilotaleku estaliak herrietan, e.a. Halere, ez dago kirol aktibitateen programaziorik eta instalazioetan estruktura gabetia larriak somatzen dira (argiak...). Bertzalde Kirol Kontzejalarekin dugun harremana ez da batere satisfaktorioa eta inguruko zenbait herrirekin konparatuz gero, dirulaguntza ere dextente murriztagoa dugu.

2.- Hasteko interesgarria da. Dena dela Klub mailan oraindik orain ez dugu ezta ezagutu ere egiten.



JAVIER BLAS
C.D. Errekako lehendakaria

1.- Nahiko gaizki ikusten dut kirolaren egoera. Klubak bi edo hiru pertsonen artean eramaten dira eta azkenean erre egiten dira. Udal eta instituzioen aldetik nahiko utzia dago, baita gurasoen aldetik ere. Egiten den lanaz ez dago kontzientiaziorik.

2.- Kirol koordinatzailearen figura ez daukat oraindik oso argi. Orain arte, batez ere, herri kirola bultzatu dute, baina nik uste hori boom bat izan dela. Klub bezala ez da bere presentzia asko nabari, subentzioak jasotzeko beharrezko informazioa jasotzeko ez bada.

kaxa da, alde batetik klubak bai pat errendimenduko kirola bultzatzen dutelako, bertetik, gaur egun klubetan jende gutxiago dago-

elako z lan egiteko, eta azkenik, klubik ez duten herriak nolapait nahiko baztertuak gelditzen direlako”.

Hirugarren irtenbidea,

“Udal guztiak elkartuz, kirol koordinaketa zerbitzuetarako enpresapartikular bat kontratatzea izanen zen” Mattarik dioenez,

modu honetan Udalek ez bait dute pertsonal gehiagorekin kargatu behar.

AITOR AROZENA

Iñaki Lujanbio, Mitxel Txoperena eta Mikel Sagarzazu

Olinpiadetatik bueltan... protagonisten balorazio eta omenaldien ordua etorri zen

1968an Olinpiadak Mexikon ospatu zirenetik ez genuen joku olinpikoen artean pilota ikusteko aukerarik izan. Aurtengo honetan bai ordea, eta gainera, alde honetako 3 pilotari protagonista genituela.

Eskuz binakako taldean Iñaki Lujanbiok urrea eskuratu zuen Frantziarren aurretik. Gehiago ezin da. Bikain. Goizuetarrak ligillan Fernandezekin jokatu zuen partidu bat eta beste guzietan Balerdi izan zuen lagun atzelari postuan. Finalean Jusan eta Mutuberria iparraldeko pilotariak izan zituzten arerioak.

Trinketean ezkuz binakako taldean Igantziko Mitxel Txoperena genuen, Larrañaga, Goñi eta Bastidarekin batera. Pronostikoez ziotenez Frantziak urrea lortuko zuen eta Espainiak zilarra. Gero, azkenean, iparraldekoen emaitzak desastrosoek urrea eskuratze-ko aukera paregabea suertatu zitzaizen Mexikoren kontra jokatuz. Txoperenak ez zuen partidu hau jokatzerik izan, eta bere hitzetan "urrea lortzeko aukera izugarria galdu egin zuten".

Trinketean paletaz gauzak diskutituagoak ageri ziren hasieratik, Argentinoren gailentasuna alde batera utzita, jakina. Sagarzazuk kontatu digunez, espe-

rantzak bigarren eta hirugarren postuaren artean jarriak zeuden, eta azkenean, hirugarrena izan zen eskuratu zutena Argentina eta Ipa-

rraldekoen atzetik eta Uругuaytarren aurretik. Talde osoa Sagarzazuz aparte, Eginola, Irizar eta Pagoagak osatzen zuten.

Eta Bartzelonatik bueltan, ongi merezitako omenaldiak bildu dituzte Iñaki Lujanbiok Goizuetan eta Mikel Sagarzazuk Irunen.

Eta protagonistek zer diote?

- 1.- Balorazio bat egitekotan, zer?
- 2.- Beraz, jarriak zenituzten esperantzan bete al dira?
- 3.- Eta bukatzeko, nolako giroa bizitu zenuten Villa Olinpikoan?



IÑAKI LUJANBIO
Esku pilota binaka

- 1.- Nere ustez gure mailako pilotari batek bizi dezakeen gauzarik haundiena eta zoragarriena izanda Bartzelonako esperientzia hau.
- 2.- Oso osorik. Urrezko domina lortzea zen nere helburua eta atxeratu dudanez gehiagorik eskatzerik ez dago.
- 3.- Gu gehien bat pilotariak elkartzen ginen eta lehendik ere ezagunak eta lagunak ginenez giro ederrean igaro ditugu egunak.



MITXEL TXOPERENA
Eskuz binaka trinketean

- 1.- Sekulako aukera galdu izanarena urrezko domina ateratzeko nahiz eta ofizialki gure aintzindariak hori aitortu nahi ez duten.
- 2.- Espero zena, Frantziako taldea lehendabizikoa eta gu bigarren. Gero, Frantziak desastre izugarria egin zuen eta guk aukera historiko bat galdu dugu urrezkoa lortzeko.
- 3.- Villa Olinpikoa mundu bat da eta bertan harreman berriak erraz egiten dira.



MIKEL SAGARZAZU
Paletaz trinketean

- 1.- Ona. Arras ona..
- 2.- Bai. Kontutan hartu behar da modalitate honetan kompetentzia haundia dagoela eta Argentina alde batera utzita, gainerakoaren artean borroka izugarria dela. Guk 2.a edo hirugarren postuagatik joanginen eta azkenean 3.ak.
- 3.- Izugarri giro polita. Horixe izan da gauzarik atseginena. Jakina, behar bezala apreziatu ahal izateko, bizitu egin behar da!

PILOTA

Lehen mailako profesionalak Beran Urriaren 2an

Bortzirietako Euskaltegiak (IKA) antolatua

Pilota jaialdi bikaina antolatu du Bortzirietako Euskaltegiak (IKA) datorren Urriaren 2rako, matrikulazio kanpainarekin batera prestatu duten egitarauaren barnean.

Arratsaldeko 7etatik aintzina, Berako Eztegarra pilotalekuan, lehen mailako esku-pilota eta

pala-korta partidoak ikusteko aukera izanen da.

Lehendabizikoan, Retegi Ilak eta berriki profesionaletan debutatu duen Belokik jokatu dute Lardutxe eta Errandonearen aurka. Pala-kortan berriz, Sanjurjo - Otero eta Santxez - Peluagaren artean izanen da norgehiagoka.

HERRI KIROLAK

Aizkolari txapelketaren lehen kanporaketa Mindegiarentzat

Mikel Mindegia zubietarrak eskuratu zuen Nafarroako lehen mailako aizkolarien txapelketaren lehen kanporaketa, irailaren 6an Ziordian egindako jaialdian.

Berekin batera, Antonio Jaunarena, Donato Larretxea, Floren Nazabal eta Joxe Antonio Loiarrek lortu zuten finalean aritzeko txartela.

600 kilotako sokatira txapelketan Amaiur irabazle


Amaiurko A taldea da Nafarroako 600 kilotako sokatira txapelaren jabe berria, Lesakan abuztuaren 29an jokaturako finalaren ondoren. Bertan 15 puntu

lortu zituen talde honek, 12 puntu Sunbillak, 9 puntu Amaiurko B taldeak, Berak 4 puntu, Basaburuak 3 puntu eta Arantzak 2 puntu. Indartsu dabilta baztandarrak.

Herriz Herri txapelketaren finala hilaren 19an Beran

Semifinalak, aldizkari hau zuen eskuetan izan orduko jokatuak izanen dira. Hilaren 12an Iruritan aritu beharrak ziren Sunbilla, Lesaka eta Basaburuak eta

hilaren 13an Irurtzunen, Amaiur, Bera eta Berriozar. Kanporaketa bakoitzetik bina talde arituko dira norgehiagokan hilaren 19an Berako finalean.



Irazoki beraterra garaile Kontrabandisten Laisterketan

Ariztegi iturendarra izan zen emakume bakarra

Joxe Mari Irazoki gazte beraterra izan zen abuztuaren 29an Saran kurritutako XXX. Kontrabandisten Laisterkaldiaren garailea, 41' 09"ko denborarekin, bigarren gelditu zen Berdouri minutu t'erdi baino gehiagoko aldea ateriz. Aurtengoan 36 izan ziren partaideak, eta beraien artean emakume bat, Ituren-

go Maika Ariztegi, 51' 26" behar izan zituelarik ibilbidea burutzeko. Iazko txapelduna, Larzabal saratarra, laugarren postuan ailegatu zen.

Bertzalde, azken hogeitamar urteotan irabazle atera direnei omenaldi txiki bat eskeini zitzaient, bakoitzari oroitgari bana emanaz.

Hamabostaldiko jokaldiak



Patxi Mindegia Zubietako aizkolaria.

18 urtekin Euskadiko Kintopeko (sub-21) txapelketa irabazi zuen bigarren aldiz Amurrión. Bere ondorengariak Jabier Mindegia eta Karlos Mindegia sailkatu ziren. Abizen kontua ote?



Sarako Kontrabandisten laisterketako sari banaketa.

Sari banaketan segitutatako erizpidea ez zen oso ulergarria izan. Normalean, saririk hoberenak lehen postuetan sailkatutakoak lortzen dituzte. Saran bertzelakoak ikusi genituen.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Baserri** edo borda bat alokatuko genuke eskualdean. ☎ 450769.

• **3 solairuko** (ganbara, pisua eta sotoa) etxea salgai Beran. 3 gela, sala, sukalde haundia, garajea, terraza eta lur eremu pixko bat badu. ☎ 630931 (Otorduetan).

• **Lesakan** pisua eta 200m²ko bajera salgai. Industria lekua. Nahi izanez. ☎ 637872.

Lana

• **Beran edo Lesakan** lana egingo nuke, haurrak zaintzen edota etxeko lane-tan. ☎ 637911 (Eduerne).

Salerosketak

• **Yamaha YZ** motoa, 90koa salgai. ☎ 450499 (Eneko).

• **Ahari** bat, 3 urtekoa salgai. ☎ 634102.

• **Bi behi** gorri beraien txokorrekin salgai. Bosna urtekoak. ☎ 580330.

• **Kamioi** bat salgai. Prezio interesgarrian eta egoera onean. ☎ 453299.

• **27 mko** Emisorea salgai "President Taylor" eta

100 Wko onda-amplifikadorea. 20.000 pzta. ☎ 637372.

• **Burnizko** tximeneta salgai, bere osagai guztiekin. ☎ 637359 - 637231.

• **Zitroen Visa** kotxea salgai, egoera onean, NA-K, 100.000 km. ☎ 452083 (Pilartxo, gaueko 7tik 11etara).

• **Honda Trail 600** eta kitarrarentzat 100 Wko amplifikadorea salgai. ☎ 630922 (Javier).

• **Honda Dominator 650** salgai, NA-AC. 600.000. ☎ 637947 (Akintxo).

• **Sukalde** kalefaktorea salgai. ☎ 630562.

• **Akordeoi** bat salgai, Parrot markakoa eta 96 bajukoa. ☎ 450700.

• **Belar** idortua salgai Ezpondakobordan (El-tzaudia). Bera.

• **Bihorra** salgai Aran-tzan, hagitz dotorea eta mantxoa. ☎ 634074.

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m² + 40 m² sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Sukalde** reforzatua

berri berria «Hervon» salgai. ☎ 592265.

• **Biscayne** gitarra elektrikoa salgai. 15.000 pzta. Guti erabilia. ☎ 581039.

• **Trikitixa** akordeoia erosiko nuke, bigarren eskukoa. ☎ 581039.

Denetarik

• **Iruñan** (Barañain) pisua osatzeko neska lagun bat hartuko genuke urritik ekainera. ☎ 160801-637052.

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika denda. ☎ 631059.

• **Neskak** behar ditugu Barañainen pisu bat konpartitzeko. ☎ 592290.

• **«Argia»** aldizkariaren kolekzio osoa dut. Interesatzen bazaizu emanen nizuke. ☎ (943) 556364 (gauez).

• **Leitzan** urrezko pul-tsera galdu da Itxaro izenarekin. Sarituko da. ☎ 510059.

• **Lau** zakurkume ematen dira. ☎ 450014.

Harremanak

• **Leitzen** bizi den Eratsungo Finfirin finari: Estanbulen berarekin egon zirenen partetik. Urte askoz. M. eta P.

• **Leitzako** Orkatx Erbiti Larralderi: Zorionak zure bigarren urtebetetzean. Musu haundi bat zure guraso eta ahizparen partetik.

• **Zubietako** Igorrentzat: zorionak zure 13. urtebetetzean (irailak 6an). Ongi pasa eta segi beti bezain alaia zure lagun baten partez.

• **Leitzan** zorionak Miguel Zabaletari 65 urtebetetzean eta bere biloba M^a Carmen Olarrari bere 11 urtebetetzean senide guztien partetik.

• **Mugaireko** Ainhua eta Edurneri, zorionak zuen urtebetetzeagatik. R.de X.

• **Leitzako** Oinatz Ben-goetxeari bere urtebetetzean zorionak bere guraso eta anaien partez.

• **Zuen** urtebetetze egunean (irailak 12 eta 13), Iñaki eta Txomin zorionak. Muxu haundi bat. Zuen izeba Juana Mari.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

GERO GEROKOAK

ORAIN EUSKARAZ BIZI

MATRIKULAZIOA ETA INFORMAZIOA

Epea: Irailak 30a arte

Non: Baztango Ikastolan (Tfnua: 580 256)

Matrikulazio eta informazioko ordutegia:

☞ Goizez: 11etatik 12ak arte

☞ Arratsaldez: 16etatik 18ak arte

☞ Gueuz: 20etatik 21ak arte

☞ Maila guztiak

☞ EGA: * Astelehene-Ortzegunera (2 orduz egunero)

* Larunbata goizez: 9etatik 13,30etara

☞ Euskara sakontze ikastaro bereziak herrietan

☞ Gurasoei zuzendutako ikastaro bereziak

ZATOZ GUREKIN!

Izan euskaldun!

BAZTANGO

aek

BIDASOAKO VIII. BERTSO PAPER LEHIAKETA

BAZTAN BIDASOA INGURUAN BIZI DIRENENTZAT

BALDINTZAK

- 1.- Argitaratu gabeko bertsoak izan beharko dute.
- 2.- Bertze Lehiaketaren batetan saririk jaso duten bertsoak ezin izanen dute parterik hartu.
- 3.- Norberak aukeratuko du **gaia, kantatuko duen doinua eta neurria**.
- 4.- Hiru maila izanen dira:
A- 14 urtetaraino: 4na bertso guttienez
SARIAK: 1.a Oroigarria eta 5.000 pzta.
2.a Oroigarria eta 3.000 pzta.
B- 14-16 bitartekoak; 6na bertso guttienez
SARIAK: 1.a Oroigarria eta 8.000 pzta.
2.a Oroigarria eta 4.000 pzta.
D- 16 urtetik gorakoentzat: 8na bertso guttienez
SARIAK: 1.a Oroigarria eta 12.000 pzta.
2.a Oroigarria eta 6.000 pzta.
- 5.- Bertsoak onartuak izateko, izenburua bakarrik eramanen du agerian. Gutunazal itxi batetan bidaliko da, horren kanpoaldean bertsoaren izenburua eta barrenaldean berriz, egilearen izen eta abizenak, telefonoa eta helbidea.
- 6.- Bertsoak GURE TXOKOA Elkartera **Urriaren 15a** baino lehen bidali beharko dira.

Antolatzailea:

GURE TXOKOA ELKARTEA

Eztegara Ibillbidea • BERA (Nafarroa)



Igantzik bestetan,
herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

Besta Zoriontsuak!

GANI

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

637796



EGITARAUUA

LESACA • Irailak 13 • 6etan
Trikiritxa Jaialdia: Lesaka, Bera, Sunbilla, Ituren,
Irun eta Hondarribiakoak

ETXALAR • Irailak 18 • 7,30etan
«Kirola» Mahai Ingurua: X. Bakero, A. Maiz, Retegi II,
Jasone Diaz de Gereñu, Donato Larretxea, I. Errandonea,
Nagore Gabellanes. Moderatzailea: Iñaki Perurena.

IGANTZI • Irailak 24 • 7,30etan
«Euskal humorea» Mahai Ingurua: Mikel Mendizabal,
Mikel Garmendia, Kike Amunarriz.
Moderatzailea: Xabi Muguruza.

ARANTZA • Irailak 25 • 9etan
'Aterpe Errelegian' Bertso eta txiste afaria:
A. Egaña - J. Sarasua - Guillermo Segurola

BERA • Urriak 2 • 7etan
Pilotariak: Pala-korta
Retegi II - Beloki
Laduche - Errandonea
Sanjurjo - Otero
Santxez - Peluaga



Nafarroako Gobernuaren diru laguntzaz